


BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA), 2006ko 3. hiruhilekoa

Lanean dagoen biztanle kopurua %1,8 gehitu da eta langabezia-tasa sei hamarren gutxitu da 2006ko 3. hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan

Langabezia-tasa %3,6ra jaitsi da. Hiru lurraldeetan jaitsi da

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 959.700 okupatu daude, duela hiru hilabete baino 17.200 gehiago (%+1,8). Generoari dagokionez, gehikuntza hori gizonen eta emakumeen kasuan eman da; dena den, gizonek bilakaera hobeagoa izan dute aurreko hiruhilekoan baino 14.800 okupatu gehiago izan direlako kasu horretan. Okupazioak hiru lurralde historikoetan egin du gora: Bizkaian 12.900 enplegu garbi gehiago dago, Gipuzkoan 2.900 gehiago eta, azkenik, Araban 1.400 gehiago.

Biztanleria okupatuaren joera 1985etik. Euskal Autonomia Erkidegoa. (Milakotan)



Iturria: EUSTAT

Azken hiru hilabeteetan industriak sortu du enplegu garbi gehien

Industrian lan egiten duen pertsona kopurua, 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean, gehitu egin da; 8.900 langile gehiago dago. Horrela, aurreko hiruhilekoan hasi zen enplegu garbia sortzeko joerarekin jarraitu da. Zerbitzuetan 7.600 enplegu gehiago

egon da eta lehen sektorean 1.600 enplegu gehiago. Eraikuntzak 800 enplegu garbi galdu ditu.

Okupazio-tasa (hau da, 16 eta 64 urte arteko pertsona-kopuru osoaren aldean okupatuta dauden pertsonen ehunekoa) %66,8 da, duela hiru hilabete baino 1,2 puntu gehiagokoa alegia. Tasa hau, gizonetzkoetan, %76,5 da, eta emakumezkoentzat, berriz, %56,9 baino ez.

Lurralde historikoka, okupazio-tasa altuena Gipuzkoan eman da (%69,7) zazpi hamarren gehitu baita; gero Araban eman da tasa altuena (%68,8) sei hamarren gehituz; Bizkaia tasarik txikiena du (%64,6) baina gehikuntzarik handiena izan duen lurraldea ere bada %1,7 gehitu baita bere tasa.

Zenbatespenen arabera, 2006ko hirugarren hiruhilekoan gutxi gorabehera Euskal Autonomia Erkidegoko 786.300 etxetan bizi diren pertsonen herenak ez dira aktiboak. 10 etxetik 6 baino gehiagotan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 13.700 gehiago hain zuzen ere.

Langabezia-tasa %4tik behera dago

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuko 2006ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa sei hamarren gutxitu da aurreko hiruhilekoaren aldean; beraz, tasa %3,6koa izan da 5.000 langabetu gutxiagorekin.

2006ko bigarren hiruhilekoari dagokionez, okupatutako eta langabetutako biztanleriaren bilakaerak ikusita, aktibotasun-tasa 0,7 puntu gehitu da eta %54,7an jarri da 2006ko hirugarren hiruhilekoan.

Emakumeen langabezia-tasa %4,2ra jaitsi da (%0,4 gutxiago) eta gizonena zazpi hamarren gutxitu da. Gazteen langabezia-tasa 0,7 puntu igo da; horrenbestez, 16-24 urte bitarteko 4.500 gazte aktibo inguru langabezian gelditu dira (%6,6).

17.600 emakume daude langabezian, 1.500 gutxiago alegia. Era berean, gizonen artean, azken hiruhilekoan 3.500 pertsona lanean hasi dira; orain 18.600 daude langabezian.

Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa, 2006ko hirugarren hiruhilekoan, euroaren eremuko herrialdeetako baino %4,3 txikiagoa da. EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2006ko abuztuan, eremu geografiko hartan, langabezia-tasa egonkorra zen, %7,9koa. Europar Batasuneko tasa %8ra jaitsi da, 25 herrialdeak kontuan izanik.

Hiru lurralde historikoetako langabezia-tasak jaitsi dira

Langabetu-kopurua hirugarren hiruhileko honetan 36.200 dela uste da, hau da, orain dela hiru hilabete baino 5.000 pertsona gutxiago. Lan bila ari diren, bilaketako kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta lanerako prest dauden pertsonak jotzen dira langabetutzat. Lurralde historikoka, Araban 4.600 langabetu daude, hau da, 500 pertsona gutxiago eta tasa %3,1era jaitsiz. Bizkaian 22.800 langabetu daude, duela hiru hilabete baino 3.400 gutxiago, baina oraindik tasa txarrena du (%4,4); Gipuzkoan, duela hiru hilabete baino 1.300 pertsona inguru gutxiago dago langabezian eta lurralde horrek du tasarik onena (%2,6).

Azken urtean zerbitzuen sektoreak 7.900 lanpostu garbi sortu ditu

Biztanleria okupatuak gora egin du azken hamabi hilabeteetan; 12.400 pertsona gehiago dira, hau da, %1,3 gehiago. Emakumeen kasuan okupazio-tasa %1,8 igo da, eta gizonen kasuan bi hamarren baino gehiago jaitsi da. Hiru lurralde historikoetan gehitu da okupazio-tasa: Bizkaian %1,5, Gipuzkoan %0,7 eta Araban %0,1, 2005eko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Azken urtean, zerbitzuen sektoreak 7.900 enplegu garbi sortu ditu, industriak 4.600 eta lehen sektoreak 3.300. Aitzitik, eraikuntzak 3.500 enplegu galdu ditu.

Langabezia-tasa ehuneko 1,4 puntu jaitsi da azken urtean Euskal Autonomia Erkidegoan

Langabezia-tasa %1,4 jaitsi da azken urtean (%5etik %3,6ra); beraz, 13.200 pertsona hasi dira lanean Euskal Autonomia Erkidegoan urtean zehar. Azken hamabi hilabeteetan, Bizkaian eta Gipuzkoan langabezia-tasa murriztu egin da: Bizkaian %2,2 gutxiago eta Gipuzkoan %0,8 gutxiago. Baina Araban tasa hori zazpi hamarren gehitu da.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2006 eko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	p.p.*	Milakoak	p.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.822,3		-0,5		+0,4	
AKTIBOAK/ IHARDUERA TASA	995,9	54,7	+12,2	+0,7	-0,8	-0,1
Gizonezkoak	574,7	64,8	+11,3	+1,3	-4,9	-0,6
Emakumezkoak	421,2	45,0	+0,9	+0,1	+4,0	+0,5
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	959,7	66,8	+17,2	+1,2	+12,4	+1,0
Gizonezkoak	556,1	76,5	+14,8	+2,0	+1,4	+0,2
Emakumezkoak	403,6	56,9	+2,4	+0,4	+11,0	+1,8
Araba	143,3	68,8	+1,4	+0,6	+0,9	+0,1
Bizkaia	496,6	64,6	+12,9	+1,7	+9,9	+1,5
Gipuzkoa	319,8	69,7	+2,9	+0,7	+1,5	+0,7
Nekazaritza	13,5		+1,6		+3,3	
Industria	250,1		+8,9		+4,6	
Eraikuntza	80,4		-0,8		-3,5	
Zerbitzuak	615,7		+7,6		+7,9	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	36,2	3,6	-5,0	-0,6	-13,2	-1,4
Gizonezkoak	18,6	3,2	-3,5	-0,7	-6,3	-1,1
Emakumezkoak	17,6	4,2	-1,5	-0,4	-6,9	-1,7
16 - 24	4,5	6,6	+0,8	+0,7	-3,6	-3,7
25 - 44	23,6	4,1	-7,0	-1,2	-8,7	-1,5
45 eta gehiago	8,2	2,3	+1,2	+0,3	-0,8	-0,3
Araba	4,6	3,1	-0,5	-0,4	+1,1	+0,7
Bizkaia	22,8	4,4	-3,4	-0,7	-11,6	-2,2
Gipuzkoa	8,7	2,6	-1,3	-0,4	-2,8	-0,8
Lehen enplegu bila	2,5	6,9	-1,1		-1,1	
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	826,4	45,3	-12,7	-0,7	+1,3	+0,1
ETXEBIZITZAK	786,3		+0,6		+24,7	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitza	540,6	68,8	+9,1		+15,6	
- Guztiak okupatuak	509,8	64,8	+13,7		+27,2	
- Guztiak langabeak	9,1	1,2	-1,6		-1,6	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	245,7	31,2	-8,5		+9,1	

*p.p. = Aldea, ehunekotan.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^a José Santamaría Gallardo

Tel:+34-945-01 75 33 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>